



20. ORDENANTZA FISKALA, UDAL EUSKALTEGIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak, Udal Euskaltegiako Zerbitzuen gaineko Tasak ezarri eta eskatzen ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. ARTIKULUA

Udal Euskaltegiak eskainitako irakaskuntza teorikoa eta praktikoa da tasa honen zergagaia.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira, zergadun moduan, tasaren subjektu pasibo: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34 eta 35. artikuluetan aipatutako erakundeak, beti ere Udal Euskaltegiak eskainitako irakaskuntza teorikoa eta praktikoa jasotzeko matrikula egiten badute.

5. ARTIKULUA

Tasa ordaindu beharra dute Udal Euskaltegiaren zerbitzuak erabiltzen dituzten edo zerbitzu horien onuradun diren pertsona fisikoak, juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34 eta 35. artikuluetan aipatutako erakundeak edo, bestela, horien legezko ordezkariak.

IV. ZERGA OINARRIA

6. ARTIKULUA

Zerbitzua gauzatzeko unitate bakoitza da zerga-oinarria, eranskinean jasotako tarifetan azaldutakoaren arabera.

V. KUOTA

7. ARTIKULUA

Aurreko artikuluan adierazitako zerga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuz finkatuko da kuota.



VI. SORTZAPENA

8. ARTIKULUA

Udal Euskaltegiak ematen dituen zerbitzuak eta jarduerak erabiltzean eta ikasturteko matrikula egitean sortuko da tasa eta tasa ordaindu beharra.

VII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9. ARTIKULUA

1. Matrikula egitean ordainduko da Tarifen atalean adierazitako matrikularen zenbatekoa, Udal Euskaltegiak interesatuen eskura jarriko duen bankuko abonu-agiriaren bitartez. Ikasleak zatika ere ordain dezake dagokiona, ondoren adieraziko den modura: matrikula egitean erdia ordaindu behar du eta beste erdia bi zati berdinetan ordainduko du, ordainketa bat azaroan eta bestea abenduan eginez.

2. Bidezko den ordainketa egiten ez badu, zerbitzuaren emakida bertan behera geldituko da.

3. Matrikula bertan behera utziz gero, honako kasu hauetan baino ez zaio itzuliko ikasleari ordaindutako tasaren zenbatekotik dagokion ehunekoa:

- Ikaslea beste herri batera doanean bizitzera.

- Ikaslearen taldea desegin egiten denean eta ezin zaionean ikasleari beste ordutegi bat edo ordezkotako talde bat eskaini.

- Ikasturtearekin jarraitzeko bestelako aukerarik ez dagoenean.

Bestelako arrazoiren bat dela medio ikasleak matrikula bertan behera uzten badu, ez zaio dirurik itzuliko, baina bi urtez gordeko zaio matrikula. Epe horretan, ikasleak matrikula gauzatu eta Euskaltegiko zerbitzuak erabili ahal izango ditu. Ikasleak ez badu bi urteko epean matrikula erabiltzen, eskubidea galduko du eta ez zaio dirurik itzuliko.

VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. ARTIKULUA

Zergen arloko arau-haustek eta zehapenak zehazteko, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, horren garapenerako araudietan eta Kudeaketa, Ikuskatzailletza eta Biltzailletzari buruzko Udal Ordenantza Fiskalean ezarritakoa aplikatuko da.

IX. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

X. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko apirilaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, 2008-2009 ikasturtean sortuko ditu ondorioak eta indarrean iraungo du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

2009-2010 tarifak

1. -2009-2010 IKASTURTEA 1,10 €/orduko

2. - MATRIKULAREN KOSTUA MODULUKA

<u>ASTEKO</u>	<u>ESKOLA-</u>	<u>2009-10</u>	<u>ESKOLA-ORDUKO</u>	<u>MATRIKULAREN</u>
<u>ORDUAK</u>		<u>IKASTURTERAKO</u>	<u>PREZIOA</u>	<u>ORDAINSARIA</u>
		<u>ESKOLA-ORDUAK</u>		
10		346	1,10 €	380,60 €
8		280	1,10 €	308,00 €
7,5		259,5	1,10 €	285,45 €
6		206	1,10 €	226,60 €
4		130	1,10 €	143,00 €

3. - APLIKATZEKO ARAUAK

3.1. - Eskatzaileak edota bizikidetzako unitateak legeak ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldata gehi 128,11 € (ehun eta hogeita zortzi euro eta hamaika zentimo) edo gutxiagoko dirusarrerak justifikatzen dituenean, %50eko beka eskubidea izango du ikasleak, beti ere Erandioko Udal Euskaltegirako onartu matrikula-tasen arabera, bizikide kontagarriak ondorengo baremoekin bat badatoz:

(Beka honen onuradunek ez dute bestelako bekarik jasoko)

1. TAULA

KIDE KOPURUA	KONTAGARRIEN	DIRU SARRERAK HILEAN	DIRU SARRERAK URTEAN
1		728,11 €	10.193,49 €
2		902,85 €	12.639,93 €
3		1.038,28 €	14.535,92 €
4		1.162,87 €	16.280,23 €
5/+		1.279,16 €	17.908,25 €

3.2. - Eskatzaileak edota bizikidetzako unitateak legeak ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldata gehi 728,11 € (zazpiehun eta hogeita zortzi euro eta hamaika zentimo) edo gehiagoko dirusarrerak justifikatzen dituenean, %25eko beka eskubidea izango du ikasleak, beti ere Erandioko Udal Euskaltegirako onartu matrikula-tasen arabera, bizikide kontagarriak ondorengo baremoekin bat badatoz:



(Beka honen onuradunek ez dute bestelako bekarik jasoko)

2. TAULA

KIDE KOPURUA	KONTAGARRIEN	DIRU SARRERAK HILEAN	DIRU SARRERAK URTEAN
	1	1.328,11 €	18.593,49 €
	2	1.487,48 €	20.824,71 €
	3	1.606,48 €	22.490,69 €
	4	1.702,87 €	23.840,13 €
	5/+	1.770,98 €	24.793,73 €